

GIZARTE ERALDAKETA. 15-18 URTEKOAK

Ikasteko zailtasunak dituzten gazteak



Centroamerica-Caribe (Venezuela, Valencia)



Atenditutako pertsonak

12 Haur: 2 mutil; Nerabe: mutil 1; Heldu: 5 emakume eta 4 gizona



Proiektuan lan egiten duten pertsonak

3

3 boluntario (emakumeak)



Gizarte-errealitatearen aurkezpena

Parte-hartzaile guztiak eremu behartsuetakoak dira, baliabide gutxikoak, segurtasun-, bide- eta argi-arazoak dituztenak. Familia nukleo osatu gabea duten familiak dira gehienak. Auzoan ez dago beren hezkuntza-beharrei eta -zailtasunei erantzun diezaieketen erakunderik eta, ondorioz, haur eta gazte hauek ez dira eskolatzten.




Egiten den lanaren deskribapen erraza

Onuradunei eskaintzen zaizkien jarduerak parte-hartzaileen beharrei erantzun nahi diete, maila pertsonalean eta sozialean moldatzen lagunduko dieten tresnak emanaz, garatu eta praktikan jar dezaketen ofizio batekin. Lanbide hauek eskulanetatik abiatzen dira, hala nola piñatak sortzea, dekorazioak egitea, gozogintza, sukaldaritza... Ekintzailtza-prestakuntzaz gain, hazkunde pertsonalerako prestakuntza ematen zaie, gizartearekin hobeto elkar-eragiten lagunduz. Guzti hau pixkanaka ematen den prozesua da, parte-hartzaile bakoitzaren trebetasunen eta mugen arabera.

MUNDUAN, NONB&IT

Itaka-Escolapios-en proiektu bat



Azken urteotako lorpenak

- Proiektuarekin lortu den lorpenik handienak talde sentimendua eta adiskidetasun ona garatzea izan dira, proiektuko gainerako kideekiko interesa eta kezka erakutsiz. Beste aurrerapauso garrantzitsu bat boluntarioritza sartzea izan da. Parte-hartzaileetako batek erakutsi du parte-hartzaile izatetik boluntario izatera pasatzeko beharrezko tresnak dituela, eta horrek erakusten du proiektuan bizitako esperientziak emaitza onak dituztela.



Etorkizuneko asmoak (hobekuntza ildoak)

- Etorkizunean ekintzailletza-tailer berriak ezartzea bilatzen dugu, arlo pertsonalean eta lan-arloetan beraien kabuz moldatzen lagunduko dieten tresna gehiago eskaintzeko.
- Jakin badakigu, guzti honek laguntzaileen prestakuntza eta trebakuntza handiagoa eskatzen duela.